

SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTUEN ESTATISTIKAK 2013

Euskal AEko administrazioen diru-sarrerak % 0,1 handitu ziren 2013an

Gastu totalak % 0,6 murriztu ziren

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen diru-sarrera finkatuen guztikoa (hau da, Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udal-administrazioak, haien erakunde autonomoak eta udalez gairdiko eta azpiko entitateak) % 0,1 handitu zen 2013an, Eustatek prestatutako datuek erakusten dutenez.

Gastuen bilakabidea, berriz, negatiboa izan zen 2013an: -% 0,6. Horren ondorioz, aurrekontu-saldo ez-finantzarioa 188 milioi euro gehitu da (2012an -293 milioi eurokoa izan zen, eta 2013an, berriz, -105 milioi eurokoa).

Euskal Administrazioen likidazio finkatua. 2012-2013

mila euro	2.012	2.013	Δ%
SARRERAK GUZTIRA	16.304.707	16.316.235	0,1
Eragiketa Arruntak	14.236.938	14.183.432	-0,4
-Zerga Sarrerak	12.330.035	12.549.144	1,8
PFEZ	4.435.013	4.374.631	-1,4
Sozietate-zerga	1.198.027	1.264.224	5,5
BEZ	4.251.363	4.379.308	3,0
Zerga Bereziak	1.364.735	1.384.829	1,5
Udal-zergak	670.890	687.515	2,5
Bestelako Zergak	410.007	458.637	11,9
-Bestelako sarrera arruntak	1.906.903	1.634.288	-14,3
Kapital-eragiketak	511.925	499.854	-2,4
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	14.748.863	14.683.286	-0,4
Finantza-eragiketak	1.555.844	1.632.949	5,0
GASTUAK GUZTIRA	15.771.212	15.682.798	-0,6
Eragiketa Arruntak	12.964.446	13.198.269	1,8
Langileria Gastuak	3.232.733	3.357.209	3,9
Transferentzia Arruntak	4.329.668	4.476.192	3,4
Bestelako Gastu Arruntak	5.402.045	5.364.868	-0,7
Inbertsioak eta Kapital-eragiketak	2.078.024	1.590.603	-23,5
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	15.042.470	14.788.872	-1,7
Finantza-eragiketak	728.742	893.926	22,7
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	1.272.492	985.163	-22,6
AURREKONTU-SALDO EZ-FINANZARIOA	-293.607	-105.586	-64,0


Iturria: EUSTAT. Sektorre publikoaren aurrekontuen estatistikak

Eragiketa arrunten bidezko diru-sarrerak % 0,4 murriztu ziren, eta kapital-eragiketengatik lortutako diru-sarrerak, berriz, % 2,4. Horrenbestez, eragiketa ez-finantzarioen bidezko diru-sarreraren guztizkoa % 0,4 txikiagoa izan zen, 2012ko datuen aldean.

Finantza-eragiketengatik onartutako eskubideak % 5,0 handitu ziren, batez ere pasibo finantzarioak handitu izanagatik: 2012an, 1.482,2 milioi euro izan ziren; 2013an, berriz, 1.549,3 milioi euro.

Gastuen atalean, % 1,8 handitu ziren eragiketa arruntengatik 2013an onartutako betebeharrak. Langileen gastuak guztizkoaren % 21,4 dira, eta % 3,9 handitu ziren, baita transferentzia arruntak ere. Azken horiek guztizko gastuaren % 28,5 dira, eta % 3,4 handitu ziren 2012ko datuekin alderatuta. Beste gastu arruntak % 0,7 murriztu ziren, baina alderantzizko bilakabideak izan dituzte osagaietan: ondasun eta zerbitzu arrunten gastuak % 1,2 murriztu ziren, baina finantza-gastuak % 8,5 handitu (308 milioi euro guztira 2013an).

1. grafikoa. Euskal administrazioen zerga sarreraren banaketa. 2013 urtea (%)



Iturria: EUSTAT. Sektoze publikoaren aurrekontuen estatistikak

Diru-sarreraren analisiak erakusten duenez, BEZagatik onartutako eskubideak % 3,0 handitu ziren 2012 eta 2013 artean, eta zerga bidez sartutako diruaren % 34,9 izan zen. Horrez gain, BEZak beste diru bildu du PFEZak, nahiz eta % 1,4ko murrizketa izan duen. Hirugarren eta laugarren tokian, hurrenez hurren, zerga bereziak eta sozietateen gaineko zerga daude. Biek izan dute bilakabide positiboa 2013an: % 1,5 zerga bereziek eta % 5,5 sozietateen gaineko zergak. Udal-zergak % 2,5eko hazkundea izan zuten.

Euskal AEko Herri Administrazioen zor bizia, 2013ko abenduaren 31n, 9.889,7 milioi eurokoa zen. 2013an hartutako pasibo berriak 1.602,4 milioi izan ziren, eta amortizazioak, berriz, 517,7 milioi. Zorrari dagokionez, BPGaren % 15,0 izan zen 2013an.

Euskal Administrazioen datu finkatuak. 2013. urtea

mila euro

	GUZTIZKO BATERATUA	EUSKO JAURL.	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
SARRERA ARRUNTAK	14.183.432	8.185.256	2.258.469	7.263.145	4.460.575
GASTU ARRUNTAK	13.198.269	8.269.649	2.116.627	6.608.625	4.187.381
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	985.163	-84.393	141.843	654.520	273.194
KAPITAL SARRERAK	499.854	397.729	41.238	69.432	29.748
KAPITAL GASTUAK	1.590.603	913.668	110.376	376.761	228.091
AURREKONTU-SALDO EZ- FINANTZIARIOA	-105.586	-600.332	72.704	347.191	74.852
ZOR BIZIA (Amortizatzeke 13-12-31)	9.889.658	7.087.726	602.332	1.364.979	834.622

Iturria: EUSTAT. Sektoze publikoaren aurrekontuen estatistikak

2013ko abenduaren 31n, 68.085 langilek ziharduen Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioetan –hau da, Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udal-administrazioak, haien erakunde autonomiadunak eta udalez gaindiko eta azpiko entitateak–: % 0,6 gutxiago, 2012ko datuen aldean.

Euskadiko sektore publikoa eratzen duten gainerako erakundeak gehiturik –elkarte publikoak, irabazi asmorik gabeko fundazio eta erakundeak, unibertsitatea eta bestelako erakunde publikoak–, 123.476 langilek jarduten zuen: hau da, % 1,1 gutxiago, 2012ko datuen aldean. Gizon-emakumeen banaketa aurreko urteetako modukoa izan da: langileen % 60,9 emakumeak; % 39,1 gizonak. Enplegu-harremanari dagokionez, lanpostu finkoa dute langileen % 68,6k.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62

EUSKAL AEko SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTUEN ESTATISTIKAI BURUZKO PRENTSA-OHAR
GEHIAGO

EUSKAL AEko SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTUEN ESTATISTIKEN GAINEKO DATU-BANKUA